



KEREXETARI ERANTZUNA ("DONOSTIA" ITZAREN "A" ATZIZKIARI-BURUZ)

Arras interesgarria iruditu zait Kerexeta'tar Jaime'k gai ortaz egin didan eskutitza-ta, berari baimena eskatu ondorean,aldizkari ontan bai bere eskutitz ori, bai nere erantzuna, argitaratzea, gauza egokia izango dala uste izan dut.

Ona emen, irakurle, legezkoa danez nere erantzunaren aurretik, On Jaime beraren gutuna:

"Elorrio'tik, 1994-11-20. "Latiegi adiskide: Nire "Linajes y Casas de Gipuzkoa" jasoko zenduala uste dot. Ondo deritzazu NOTAS orri?"

"Gai bati buruz argitasun geiago eskatuko neuskizu. Begira: Irakurri egizu liburu orretako 6'garren orrialdea: Donostia, Errenteria, Azkoitia, Azpeitia eta abar. Zure idazlan baten —¿non?— irakurrita daukat azkenengo a ori latiñaren indarrez edo eragiñez datorrela, baiña era jatorrak Donosti, Errenderi, Azkoiti, Azpeiti dirala.

"¿Zuzen ulertu ote neban zuk esaten zenduana? Onela ba'da, azaldu egidazu, mesedez, zure eritzia, ezpañtan itzi nenduzun-eta.

"Badakit gipuzkoar askok —¿geienak?— Donosti'ra, Errenteri'ra, Azkoiti'ra, Azpeiti'ko esaten dabena, eta atzizki baga danean be bai: Donosti, Azkoiti...

"Idoro dodazan bertsoetan a'z agertzen dira, baiña orrek ez daust balio, bertsolariek silabak, batzuetan geiegi luzatzen eta laburtzen dabez-ta, bertsolarroari egoki dakiona jarririk. Edozela idazteko askatasuna artzen dabe. Orregaitik, nire eritziz, bertsoetan agertzen diran ainbat era ezin onartu daitezke, "antxiñako" idazleak izanarren be.

"Eta besterik ez, gaurkoz. Agur biotzez.

Jaime

Ikus, orain nere erantzuna
Gazteiz, 1994. Otsailak 23.

Kerexeta'tar Jaime adiskide zintzoari:

Bizkai'n, Elorrio'ko Elizburu kalearen 24'garren zenbakira.

Kaixo Jaime:

Zureari erantzunez, ona emen, eskatzen d; dazun nere iritzi apala:

- Guk, beti, Donosti, Azkoiti, Azpeiti, Errenderi esan izan degu. Eta ondo-rioz, Donosti'ra, Azkoiti'ra, Azpeiti'ra, Errenderi'ra. "A" atzizkia erabiltze ori, adibidez Donostia esatea, itxas-aldekoen oitura da; baiñan oiek ere ez dute itzegiterakoan Donostia'ko esaten, Donosti'ko baizik. Eta donostiar beraiek, Donostiya'ka, kalekumeek, Donosti'ko baserritarrek.

"Errenderi", berriz, guri, erderakeria iruditu oi zaigu, eta euskal- fonetikaren araura "N" baten atzetiko "T" ori "D" biurtzen dalako, Errenderi agoskatu oi degu Pasai'ko errenderiaren izena:

"Lezo eta Errenderi,
Irugarrena Oyartzun.
Diostesalbe nere lagunok
Garboarekin erantzun",

dio, lurralde artan mutillek Agate Deunaren bezperako eskegintzan abestu oi duten aapaldiak.

Berdin Donosti'ko beste abesti anitz ezagun onek:

"Iru damatxo, Donostia'ko
Errenderi'an dendari".
Josten ere badakite baiñan
Ardoa edaten obeki".

"Iru damatxo, Donostia'ko Errenderi'an dendari", (kai bakoitzak bere errenderia -eta izen ortako auzo bat- bai bait zuan), eta ez, orain abesten asi diran bezala", "Donostia'ko iru damatxo, Errenderi'an dendari".

Orra or non agertzen zaigun zorioneko "A" ori: Errenderia, Donostia...

- Agertu, ordea, itz-neurtuzko esaldi batzuen barruan agertu zaizkigu "A" oiek, eta zuk zerorrek ederki diozun bezala: "Orrek ez daust balio, bertsolariak silabak, batzuetan, geiegi laburtzen eta luzatzen dabez-ta, bertso-lerroari ego-ki dakiona jarririk. Edozela idazteko askatasuna artzen dabe."

- Nere ustez, azkeneko "A" ori, gaur-egun erabilli oi dan eraz, fonetika-joku utsa besterik ez degu. Eta iñoiz ere ez da bakarrik erabiltzen. "IA" ori euskal-belarrientzat gogorregia dalako, ez du erriak, legorkj, Do-nos-ti-a" esaten, Donostiya baizik, naiz "Y" ori argiago edo illunago agoskatu. Donostiya, beraz, eta, Azpeitiya, Azkoitiya, edo Donmostixa, Azpeitixa, Azkoitixa, Azkoiti'n bertan adibidez. Bizkai'ren izena ere, idatzi, Bizkaija idatzi izandu da. Ez al da iñon orrela agoskatu?

Ez det sekulan, oraindik Azkoitiha'rik aurkitu, baiñan aurkitu aal izango det eskierki, alperrikako "H" orrek zikindu duan itz euskaldunik ez bait da. Bizkahia, baj, askotan aurkitu izan det. "H" orren zergaitia? Bizkaya adieraztea, ezpairik gabe.

- Guretzat, Azkoiti, Donosti, Bizkai, Frantzi, eta orrelako Uri ta Laterrien ize-nei erasten zaien "A" ori, biotako bat da: euskal-artikuloa, edo lateratik jasotako erdelkeria.

- Guk, argi-argi, artikulo bezala erabiltzen degu: Frantzia esaten degunean, "la Francia" esan nai degu. Bizkaia, "la Vizcaia" izango litzake.

Norbaitek esan dezaidaket "Bizkaia" ori "Bizkai" itzaren "nominatibu-era dala, eta era ortan, esaldiak nominatibua eskatzen duan esaldi guztietan erabilli daitekeala. Are geiago, erabilli egin bear dala. Adibidez: "Zer da erri onen izena"? galdetzen duanari, "Azkoitia", erantzun bear zaiola. Ez det uste, ori diotenak zuzen dabiltzanik.

Toki-izen eta giza-izen nagusiek ez dute euskeraz nominatiborik; deklinaketarik ere ez bait dute. Neri, norbaitek, "zure izena zer da"? galdetzen ba'dit, nik ez dezaioket erantzun, "nere abizena Latiegja da, eta nere izena, berriz, Bixentea". Ori egin dala, bai, badakit. Adibidez, Barrutia aramaionatarrek eguberrietarako idatzi zuan antzerkian "Jesus'a" esaten dio Jesus'!

"Espiritu Santuak geriza egiñik,
Jesusa xaioko da birjinea ganik".

"Laister xaioko da Jesusa neuganik.
Kontenturjk bioz au kabidu ezin gat".

"Amorioak dakar zeruti Jesusa zuen artera
Bakatuaren poderiotik guztiok atarazera".

"Biur ezazuz orain geugana
Jesusa zeure begiak"

"Aldagidana egingo dot nik neure podere guztian
Kruze baten ysetarren Jesusa lengo mendian".

Azkeneko oiek, Kalbario-menditik datorren Asmodeo deabruak Luzifer deabru Nagusiari esaten dizkion itzak dira.

Guztira, bost aldiz idazten du Barrutia'k "Jesusa", eta bi aldiz bakarrik "Jesus". Zergaitik? Bertsogintzak ori eskatzen ziolako? Baleike. Emen "Jesusa", or "Jesus", eta an ostera "Jesusa" idaztea, oso ederki bait zetorkion bertsoen neurjirako.

Aramaiona ta Arrasate'ko euskaldunek, artikulo ta guzti, esaten ote zuten "Jesus'a". Baietz dirudi, bestela ez bait zan ausartuko Barrutia, antzoki batean arrasatearrej esana izan bear zitzaien antzerki batean "Jesusa" idaztera ausartuko.

Ñere ustez, "A" ori, artikuloa da: gaztelerazko "el" artikuloaren itzulpena: "El Jesus": "Jesus'a".

- Gaur-egungo Euskaltzaindiaren garailleek darabilkiten eran, laterazko erdelkeria da. Baiña, lateraz, adibidez, Italia edo Germania esaten ba'da ere, zergaitik guk, euskeraren sena urratuz, Germania eta Italia esan eta idatzi bear degu? Frantziarrek Germanie, Italie, idazten dute; Germany eta Italy, berriz, ingladarrek; eta Germanien, Italien, doistarrek..

Izkuntz oiek danek, jtz oiek eta itz oien antzekoak, bakoitzak bere senaren araura artu ta erabiltzeko eskubidea baldin ba'dute, zergaitik ez du Euskerak, beste orrenbeste egiteko, aiek ajiñako eskubiderjk izan bear? Izkuntzatik izkuntzara, ez al da bá gure euskera, beste izkuntz aiek bezain izkuntz onuragarri bikaiña?

- Euskeraren izkutuki guztien ezagule berdiñik gabea degu zure ta nere adiskide dan Zatarain dar Anburtzi. Badu bá, gure adiskide onek, Gipuzkoa'ko uriburuaren izena Donostia ez baiña Donosti dala esateko arrazoj bereizi portitza: izen ori, jatorriz, Donostia ba'litz Donosti'ko seme-alaba bati "donostiatarra", esan bear ko litzaiokeala, eta ez "donostiarra", baiña "donostiatarra" ez baiña DONOSTIARRA esan zaiola, esaten zaiola, eta esango zaiola beti, euskeraz itzegiteko gai dan euskotar bat Euzkadj'n gelditzen dan artean. Eta ori, baita donostiar beraien artean ere.

Bizkai'ko mugatik urruti, mendian jaio, mendian azi eta mendian bizitutako giputz ala napar zaar batek, "lurralde ori Bizkai" da, esango luke, Arrate-menditik sarkalderuntz begira. Zuek, ordea, gaur-egun beintzat, "lurralde au Bizkaia da" esaten dezute. Alare, ez det sekulan zuetako bati, "ni bizkaiarra" edo "bikaiatarra naz", esaten entzun. "Ni bizkaitarra naz", esan oi dezute beti.

Argitaratu-berria dezun "Linajes y Casas de Gipuzkoa" izeneko liburu zoli, oparo, ederreko OARPENEL-buruz, Jaime, zuri zer esanik ez det. Zuk zerorrek bertan damaiguzu bá urrezko araua, euskal-itzak erderaz nola agoskatu aztartzen dezunean.

Izan ere, euskerak ez du "prosodi-azentu" edo "aize-talkarik"; beti, eta soilki, "melodi" edo "doiñu-azentua" du bere azentua.

Baiñan zuk ederki diozunez, itzen agoskerako doiñu ori ez da gure errialde guztietan berdiña. Ezta, errialde bat berean, itz bat beraren doiñua ere esaldi ezberdiñetan. Eta, areago oraindik, esaldi bat berean ere, ezberdiña da itz berberaren agoskera, esaldian artzen duan lekua- ren araura.

Ortik, euskal-itzak erderaz nola agoskatu bear diran erabakitzeke, korapillo zail askatu-eziña. Altaguztiz, nik, al danean beintzat, erderaz euskal-izenak idaztean, idatzi egingo nuke azentua ere, adibidez "Mendía" itza, egoaldean gaztelarrek "Méndia" eta iparraldean frantziarrek "Mendiá" edo "Mandiá" agoskatu ez dezaten.

Era berean, euskeraz, lengo arau jatorrek agintzen zuten bezala, izen nagusien ondorean atzizkiaren aurretik nik beintzat beti idatziko det kakotxa, irakurleari erreztasun guztiak emateko.

ORION ikusi det asko ez dala iragarki baten buruan. Bertara urbilduta jakin aal izan det, itz ori, izar baten izena ez baiña erri batena zala, eta erri ortan, Orio'n ainzuzen, zerbait gertatu-bearra bazala.

Esku-paper batean SANTUTEGI OROKO det irakurria. Alperrik asi nintzan, santutegi guztien zerbait ura zer izan zitekean jakiteko, paper ura irakurtzen, an ziona, Oro'ko Santutegi arabarrari bakarrik bait zegokion.

Eranegun Araba'ko 011 abarre'ko elizaren atean iragarki batek "UDALA OKAKO" zeraman izenburu. Arriturik urbildu nintzan iragarki aren ondora, baiñan alperrikako arritasuna izan zan nerea, izenburu ark "Oka'ko Udala" besterik ez bait zuan esan nai.

Ar dezagun idazterakoan arautzat onako jardunkera garbi au: Idatzia- ren irakurketa eta ulerpena errezten duan guztia, jarri: eragozten duan guztia, kendu. Nere ustez gaiñera "Udal Okako" eta "Santutegi Oroko", "Don Kijote Mantxako" bezala, gaizki tajututako esaldiak dira. Oka'ko udala, Oro'ko Santutegia, Mantxa'ko Don Kixote", esan eta idatzi bear da. Badakit beste era orren antzeko esaldiak ere erabiltzen dirala erri- euskeran, baiña soilki umeen jolas-abestietan.

Agur, Jaime. Barka egiozu zure adiskide oni, erretolika trakets au. Zure esanera.

Eskutitz ori Jaime'ri bidali ondorean, onako beste au artu dut arengandik: "Elorrio'tik 1994-III-1.

"Latiegi Adiskide: Gaur eguerdian jaso dot zure azken-eskutitza.

"Oso ederto ta interesgarria zure idazlana! Bialdu, bai, "Euskerazaintza" aldizkarira, askori egoki be egoki izango dakie-ta

"Rentería" "Erreterria" dala, Mitxelena'k esan eban, eta Euskaltzain- diak jarraitu ari.

"Nere eskutitza zuk barriro idaztean, lau uts txiki aurkitu dodaz:

"Ondo deritzazu NOTAS orri?" Eta nik ¿Ondo deritzazu NOTAS orri?" Bigarrena: "¿Zuzen ulertu ote neban..." Eta nik -eta bizkaitarrok-: "¿Zuzen ulertu ete-neban... Irugarrena: "Badakit gipuzkoar askok..." Eta nik: "Ba-dakit gipuzkoar askok..." Laugarrena: "Bertsolariek silabak, batzuetan geiegi..." Eta nik: "bertsolariak, batzuetan, geiegi..."

"Jakin"en adizkera, argien, onela bereizten dala konturatu nintzan aspaldi: "Ba-dakit: ya lo sé, sí lo sé; badakit: si lo sé" Leenengoa, baiezkoa; bigarrena, baldintzazkoa. Argiago, ¿ez?

"Bardin itaun-ezaugarriak be: asieran eta azkenean; asieran jarri ezik, ez dakizu esaldiari zentzunik emoten azkenean itaun-ezaugarria ikusi arte; esaldia zerbait luzea danean, bitartean galduta lez ibiltzen zara, baiñan ez itaun-ezaugarria asieran jarten ba'dozu. Onetan gazteleraz egokiago egiten dala uste dot. Eta guk, ¿zergaitik ez? Argiago eta obeto.

"Beste bat arte. Agur.

"Jaime".

Ta, eskutitz orri, onela erantzun diot nik:

Gazteiz, 1994'ko Epaillak 4.

Agur zuri, Jaime, nere adiskide zintzo orri.

Oraintxe bertan iritxi zait zure bigarren eskutitza, neri, zure

lenengoa "Euskerazaintza"rentzat birr-idaztean egin nituan lau okerkeri-
txoen berri emanez.

Benetan diozut, Jaime, oartzeke egindako okerkeriak izan zirala. Giputza izanik ni, ez bait nintzake beñere bizkaitar bati bere euskera zuzentzen astera ausartuko. Askoz gutxiago, nori?... eta On Jaime Kerexeta'ri!

Bi gauzatxo esan nai nizkizuke, zenbateraiño natorren zurekin bat, jakin dezazun.

Aurreneko gauza: Galde-ikurra galdera ororen asieran ere ipintze ori, nik eskatu nuan Euskerazaintzaren lenen-lenenetako billera batean. Bi arrazoi ipiñi nituan:

- Españiarrek eta portugaldarrek ipintzen dutela.

- Ipintzen ez dituzten izkuntzek, ikur orren bearrik ez dutelako, ez dutela ipintzen. Esaldi batean aditza aurretik jartzea naikoa bait dute esaldi ori galde bat dala adierazteko: "Have you...", inglanderaz; "avez vous..." frantzeraz.

Nere alde atera zan Anbroxio Zatarain. Aurka besteak. Jexux Gaztañaga bereiziki.

Bigarren gauzatxoa: "BA" aurrizkiari-buruz ere, aurrizki ori, baldintza-adierazle danean, Euskerazaintza Akademiak, atzetik kaxotx bat erastea eta orrela darraikion aditzetik bereiztea, erabaki zuanean ("ba'da"), era berean, "BA" baiezkoaren adierazle danean ere, darraikion aditzetik lerrotxo baten bidez bereiztea eskatu nuan nik ("ba-da"), batez ere orrela euskal-ikasle ta euskaldun berriei idazkien ulerkera errezteko asmoz.

"Estrategi" edo azken-elburu lez Euskeraren salbamena bizkortzea artuz,

au izan bait da beti nere "taktika" edo jardunkera: Izkuntza idatziaren irakurketa, eta ondorioz, irakurri danaren ulerketa erreztan duan guztia, JARILLEA! Eta ori eragozten duan guztia, ta, ondorioz, izkuntzarentzat alperrikakoa dan guztia... KENTZEA. Alperrikakoa izan daitekean orok, "H"ak adibidez, eragozpen txit kaltegarriak sortzen bait dizkio il-zorian daukagun Izkuntzari.

Euskerazaintzaren billera artan Anes Arrinda izan zala uste det, nik eskatzen nuan lerrotxo ura bearrezkoa ez zala esan ziguna, ate aren esana izan zan ontzat artua.

Ori guztia, teorizko arazoei-buruz. Orain eskuartean degun beste arazo oni dagokionez, zure bigarren gutun au arras garai erosoan iritxi bait zait, zure aurreneko beste ura oraindik irarkolara bidali gabea dedan ezkeru. Orain, zure bigarren au argitaratzearekin zuzendurik gelditzen dira, uste gabeko nere lau akats aiek.

Badakizu, Jaime, bearkizun orotan nori agindu.

Latiegi'tar Bixente

P.D. "Errenderi"ri; "Errenteri" esan bear zaiolako ori Mitxelena'ren gogoeta dala, baneklan; eta, zuk diozun bezala Euskaltzaindiak "ari jarraitu" ziola jakiteak ez nago batere arritzen; Euskaltzaindia'ren billeretara sarri-arri joan izan dan Zatarain'ek dionez, ori gertatu bait da beti Euskaltzaindi orren altzoan. Ez da an iñor Mitxelena'ri ezezkorik esateko gauza izan, Zatarain bera izan ez;k.

Jaime: Ezer geiagorik gabe, nere agurrik beroena zuretzat.

L.'tar B.

